

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Erriberriko Antzerki Jaialdia garai eta joera eszeniko guztietara ireki da nazioarteko programazioaren aldeko apustuarekin

*Gaur hasi da uztailaren 20tik abuztuaren 4ra bitartean ospatuko den 19. ediziorako sarreraren salmenta*

Asteartea, 2018.eko ekainak 12

[Erriberriko Antzerki Jaialdiak](#) antzerki klasikoan inspiratutako [programazioaren](#) aldeko apustua egin du aurten, garai eta joera eszeniko guztietara irekitzeko eta nortasun propioa duen nazioarteko erreferentziazko jaialdi bihurtzeko asmoz, Europako zein Latinoamerikako egile eta taldeei tartea eskainiz.

Kulturako zuzendari nagusi Dori López Juríok eta Erriberriko Antzerki Jaialdiko zuzendari artistiko Luis Jiménezek aurkeztu dute gaur goizean uztailaren 20tik abuztuaren 4ra bitartean ospatuko den jaialdiaren hemeretzigarren edizioa, “antzerkiaren festa bihurtzeko xedearekin”, Jiménezek hitzetan. Jaialdiko zuzendari artistikoak gaineratu duenez, “taldeei edo proiektuei baino

askoz ere garrantzi handiagoa ematen diot publikoari. Honen arabera hautatzen ditut kulturarako sarbide handiagoa nahiz kontzientzia eta gogoeta kritikoaren ikuspegitik obrarekiko eta eszenaratzearekiko bat-egite handiagoa eskaintzen dizkiguten proposamen eszenikoak”.

Bestetik, López Juríok argin utzi nahi izan du, “jaialdi honen bultzadaz, Kulturako Zuzendaritza Nagusiak Nafarroako sektoreko profesionalen aldeko sostengu irmoa berretsi duela. Izan ere, helburu horrek Nafarroako Gobernua garatzen ari den Antzerkia Bultzatzeko Planari atxikitako beste ekintza eta ekimen batzuk motibatzen ditu”.

### IKUSKIZUNAK



Aurtengo edizioko kartela.

Kulturako Zuzendaritza Nagusiak eta Baluarte Fundazioak antolatuta, Erriberriko Antzerki Jaialdiak zuzendari gonbidatu bat izanen du 19. edizio honetan: Alfonso Zurro, antzerkigilea, eszena-zuzendaria eta Sevillako Arte Dramatikoko Goi Eskolako zuzendaritza eszenikoko irakaslea. Bere lanaren zati handi bat Sevillako Teatro de la Jácara taldearekin egin du eta Caín Club Teatro konpainiaren sortzailekidea da. Zurrok ongi bereizitako bi proposamen aurkeztuko ditu La Cavako agertokian antzerki-programazioa hasi eta bukatzeko, hurrenez hurren: batetik, bere azken sorkuntza, "Luces de Bohemia" (1924), 98ko Belaunaldiko antzerkigilerik nabarmenenetakotzat jotzen den Ramón María del Valle Inclán idazlearena; eta bestetik, sari gehien ekarri dizkion lana, "Hamlet" (1599), William Shakespearerena. Bata zein bestea El Teatro Clásico de Sevilla taldeko produkzioak dira.

Shakespeareren "Macbeth" lanetik eta Juan Rulforen unibertsoetik, Erriberriko ikusleak Mexikoko 1910eko iraultzetara abiatuko dira Los Colochos konpainia mexikarraren "Mendoza" ikuskizunarekin. Eta "La Fiesta del Viejo" –"Lear Errege"– taularatuko duen Índigo Producciones konpainia argentinarrarekin, Jaialdiak urtebetetzeko ospakizunetatik familia barruko betiko gataska eta traizioetara abiatuko da.

Frantzia ongi ordezkaturik egonen da bi egile handiren eskutik. Batetik, Marivaux, Thomas Jolly zuzendari gaztearen gidaritzapean. Espainian eskainiko duen lehenengo ikuskizun honetan, La Piccola Familia izeneko konpainiaren laguntzaz, "Arlequin poli par l'amour" (1720) antzezlan eskainiko du frantsesez, baina gaztelaniaz azpidatuta. Thomas Jolly Avignongo Jaialditik etorriko da zuzen-zuzenean Erriberriera, izan ere, uztailaren 6an, Senekaren "Tiestes" estreinatuko du Cour d'Honor du Palais des Papes aretoan. Ikuskizun hori uztailaren 15a arte programatuko da.

Bestetik, Molière eta "Tartufo, el impostor" (1664) gaztelaniaz entzuteko aukera izanen da Madrilgo Venezia Teatro konpainiarekin. Hauxe izango da Pedro Víllorak landutako bertsio honen azken funtzioa.

Gaztela eta Leondik, Antzerki Klasikoaren Konpainia Nazioanalarekiko (CNTC) koprodukzioan, Nao d'amores Espainiako antzerkiaren jatorrietara bidaiatu da Torres Naharroren "Comedia Aquilana" (1485) obrarekin. Ana Zamorak zuzendu du Espainiako antzerkigintzako lehen obra erromantikoa.

Miguel de Cervantes idazleak ere merezi duen lekua izanen du Erriberriin, Lauretzi Producciones taldeak 6 eta 80 urte bitarteko publiko guzti-guztientzat prestatu duen "El hermano de Sancho" izenburuko jolas eszeniko, bisual eta soinudunarekin.

La Cavan, jaialdia, Sara Caleroren "Fandango Street" dantza flamenkoko ikuskizunaz bukatuko da. Espainiako musika mota hau Europako hainbat konposiziotan azaldu ohi da, eta jauregi giroko doinuetan nahiz komedia-lekuetako entremes eta ikuskizunen bukaera gisa dantzatu izan da. Egungo flamenkoaren artistarik eredugarrienetakoa izanik, Sara Calerok erreferentzia horiek hartu eta hiri-inguru garaikidera eramatea du erronka.

La Cavatik kanpo, jaialdiak Errege Jauregiko zenbait areto eta Erriberriko hainbat esparru publiko hartuko ditu, José Padillak iazko edizioako "Poetica Teatral" zikloaren barnean eta "On Kixote" liburuko Marcela artzainaren pertsonaiaren bakarriketan oinarrituta sortu duen "Gris/Mar" ikuskizunaren bi emanaldi eskaintzeko eta nafar taldeen beste lau proposamen taulartzeko, "Egile espainiarrei buruz, koblakariengandik 98ko belaunaldiraino" lemapean: "La Trovairitz", Montse Zabalza eta Peio Otanorena; "Como las cenizas por el fuego", Iralei Teatro taldearena; "Polvo serán... mas polvo enamorado", La Nave Teatrorena; eta "Tres tristes tigresas", Atikusena.

Edizio honetan, jaialdiak bi antzerki-esperientzietan parte harzteko aukera emanen die publikoari eta Erriberriko biztanleei. Bata, "Negua", Iparraldeko dantzak eta erritualak Erriberriko landa eremuko inauterietako maskarekin eta dantzekin lotuta eskainiko dituen kaleko ikuskizuna; eta bestea, "Vecindarios", Candelita clownak landutako egoitzako lana, zein, aitonak irakatsitako poesiekin eta istorioekin liluratuta, Pirinioez bestaldetik etorriko baita astebetetz, Erriberriin beste auzokide bat balitz bezala finkatzeko asmoz.

Aurten ere, arte dramatikoko hiru eskoletan landutako ikasketa-bukerako lanak izango dira ikusgai Tafallako Kultur Etxean. Nafarroako Antzerki Eskolak Angélica Lidell-en "Eché mi corazón a freír en la sartén" (Nire bihotza frijitzera bota nuen zartaginera) aurkeztuko du. Bordeleko Antzerki Eskola

Nazionalak, Joven Compañía de Teatro Clásico taldeko antzezleen laguntzaz, Calderón de la Barcaren “La vida es sueño” taularatuko dute. Sevillako Arte Dramatikoko Goi Eskolak Federico García Lorcaren “Así que pasen cinco años” (Bost urte igarota ere) aurkeztuko du.

### **ALDI BEREKO JARDUERAK**

Ikuskizunen programazioarekin batera, Erriberriko Antzerki Jaialdiak aldi bereko hainbat jarduera ere antolatzen ditu. Ondoz ondoko hirugarren urtez, lan-egonaldia eskaini zaio Nafarroako konpainia eszeniko bati proiektu artistiko bat garatzeko ikerketa-laborategi gisa. Kasu honetan In Extremis taldeak egonaldia egingen du uztailaren 20tik abuztuaren 5era bitartean Erriberriko Ikastetxe Publikoko erabilera anitzeko gelan.

Era berean, jaialdiak Nafarroako antzezleei zuzendutako bi tailer programatu ditu. Uztailaren 23tik 27ra bitartean, Tafallako Kultur Etxean, José Tomék “A la búsqueda de Calderón” (Calderonen bila) izenburuko tailerra eskainiko du, “La vida es sueño” obra, honen egilea eta bertan ageri den ekintza bihurtutako hitza aztertzeko. Bestetik, uztailaren 30etik abuztuaren 2ra bitartean, Erriberriko Kultur Etxean, Alfonso Zurrok “Creación e interpretación en el personaje” (Pertsonaiaren gaineko sorkuntza eta interpretazioa) delako ikastaroa emango du, antzezleek pertsonaiaren bilaketa sortzailerako egin ohi duten ikerketa praktikoan oinarrituta. Alfonso Zurrok zuzendari gonbidatu gisa izango duen parte-hartzea abuztuaren 3an bukatuko da, Erriberriko Kultur Etxean jendeari irekita egingo den “Teatro Popular” deritzon topaketarekin.

Egun berean, Jauregian, Mikel Zuzarekiko solasaldiak eta Príncipe de Viana: el hombre que pudo reinar izenburuko haren liburuaren irakurketa antzeztuak egingen dira.

Abuztuaren 3an, publikoari irekitako topaketa egingen da. Foru Komunitateko sektore profesionalari sostengua adierazteko ekimen honen bitartez, Erriberriko Jaialdiak ikuskizunaren arloa gainditu nahi du sormena sustatzeko eta jarduera eszenikoari buruzko ikusmolde berriak lantzen laguntzeko.

Aurtengo edizioiko programazioa osatzeko, topaketa bana antolatuko da Mikel Zuzarekin eta Alfonso Zurrarekin.

### **KARTELA ETA SARREREN SALMENTA**

Aurtengo edizioan, jaialdiaren irudiak bi elementu bildu ditu: abanikoa eta maskara. Horiekin, jolasteko eta parte hartzeko gonbita luzatu nahi zaio publikoari. Laburbilduz, kartela Erriberriko antzerkiaren festa bizitzeko gonbidapena da.

Sarreraren salmentari dagokionez, gaur, ekainak 12, 19. edizioiko ikuskizunetarako sarreraren online salmenta irekiko da publikoarentzat [www.oliteteatrofestival.com](http://www.oliteteatrofestival.com) eta [www.baluarate.com](http://www.baluarate.com) webguneen bitartez. Txarteldegian, sarrerak Baluarten eros daitezke ekainaren 12tik uztailaren 5era, astelehenetik larunbatera, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara bitartean. Baita uztailaren 16tik abuztuaren 3ra ere, astelehenetik larunbatera, 11:00etatik 14:00etara bitartean.

Erriberriin, sarrerak uztailaren 16tik aurrera erosi ahalko dira, eta jaialdiak dirauen bitartean, Turismo Bulegoa-Ardoaren Museoan (Teobaldotarren Plaza, 4). Irekiera ordutegia 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara bitartekoa da astelehenetik larunbatera. Gainera, La Cavan funtzioa dagoenean, sarrerak 19:00etatik aurrera eskuratu ahalko dira, antzezpenera hasi arte.

Interpretazio eskolen zikloko ikuskizunetarako sarrerak Tafalla Kulturguneko txarteldegian eta online baizik ez daude salgai, eta gaur hasita, ekainak 12, erosi ahalko dira ([https://es.patronbase.com/\\_Tafalla/Productions](https://es.patronbase.com/_Tafalla/Productions)) 6 euroko prezio bakarrean.

Prezioa aldakorra da ikuskizunen arabera (La Cavako edo Armen Patioko emanaldiak) eta asteko egunaren arabera (ostirala eta larunbata, edo igandetik ostegunera). Jaialdiak zenbait abonua ere sustatuko ditu.